

Eukeni Arriortuaren Pastoreak dokumentalak saria jaso dau

12. orrialdea

Aitzol Atutxak Euskal Herriko txapela irabazi dau bosgarrenez

Finala Iruñeko Labrit pelotalekuan jokatu zan urri bigarrenaren 28an. Lehia estua izan zan. Atutxak 37 minutu eta 29 segundotan amaitu eban lana. Bigarren Iker Vicentek egin eban eta honek 19 segundo gehiago behar izan ebazan. 11. orrialdea



Eskean Kristök bere atzen lana aurkeztuko dau hilaren 9an Kiñu Gaztetxean

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

305

2018ko zemendiaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Eskoi muturraren gorako joerea geldituteko ekintza bat prestatuko dau European OEEK



Neofaxismoak errefujiadu eta migratzaileen kontrako diskursoak erabilten dauz.

Gizarte mobimentuak eta gizartea orokorrean ez bada mobilizetan, sozialdemokraziak eta partidu liberalak ez dirala gai izango Europako Parlamentuan ultraeskoiaoren gorakadeari aurre egiteko uste dabe Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformakoak. Horregaitik, Europa mailako ekintza bat egin gura dabe hauteskunde bezperetan, eta horretarako Mugak Zabalduz karabanan sortutako sareak erabiliko ditue. 8. eta 9. orrialdeak

Arratian hidrokarburoak bilatzeko baimena dago



Eusko Jaurlaritzak Lore izeneko eremuan hidrokarburoak bilatzeko baimena emon eban urri bigarrenaren 9an Dekretu baten bidez. Hor, Dimako udalerrria dago batez be.

Astebete lehenagoko Aginduan, Saia izeneko iker-

keta baimenari uko egiten jakon "partez": 44.000 hektareari uko egin eta 5.000 hektareatan zentruaz. Baimendutako 5.000 hektarera horreen koordinadak ipini ditu mapan Dimako Udalak eta zati horretan Arratia dagoala ikusi daiteke. 5. orrialdea

ARTEA

Zemendirako dozena bat musika jarduera antolatu dabe Artean

Ipuin edo-eta liburu aurkezpen musikatuak, estilo desbardineta musika klasiko zein modernoko kontzertuak, kalejirak, berbaldia, diskofesta... Arteako Azaro Musikalak musikaz beteko dau herria zemen-dian. Arteako Udalak, AKKT-k, Jubiladu alkar-teak, Guraso alkar-teak, Herriko Bentak, Batzokiak, Arteako eskoleak eta Arratiako Musika Eskoleak antolatu dabe alkarlanean. 13. orrialdea

ARRATIA

Arratiak be hartuko dau parte Euskaraldian

Zemendiaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, Euskaraldia: 11 egun euskaraz ariketa soziala egingo da Euskal Herri osoan. Baita Arratian be.

Urrietan, atxikimendu eta izen emote kanpainak egin dira herrietan. Informazioa, kartel, mahai, batzar eta sare sozialen bitartez zabaldu da. Eta bideoak eta beste ekintza asko egin ditue jentea ariketa sozial honeri lotzeako.

Helburua, euskeraz dakienean eta berba egiten dabenen arteko arrakala murriztea da. Hau da, jentek hizkuntza ohiturak aldatu eta euskera gehiago egitea. Horregaitik, parte hartzean dabenen kopurua baino inportanteagoa da euskaldunen sareak sortzea. 5. orrialdea



ARTEAKO UDALA

ARTEAKO ATERPETXEAREN LEHIAKETA PUBLIKOA
(EKOMUSEOA IZANDAKOIA)

15 urterako esleipena

Bete beharrekoak:

36 lagunentzako aterpetxe turistikoa sortzea

Taberna eta jatetxearen kudeketea aurrera eroatea

Oilaskoteria izandakoa berreskuratzea uda garaian

• Proiektuak aurkezteko atzen eguna azaroaren 20a izango da

• Pliegoak www.artea-udala.org helbidean dagoz

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Txindor / Papargorri



Gorri koloreko paparra da hegazti txiki honen ezaugarri nabarmenena. Arratia inguruan txindor (txindorra, ahoskatuta) eta papargorri edo papagorri (papargórrie, papagórrie ahoskatuta) izenez gain, beste berba hau be jaso da Ubiden: labaxori. Batuan, txantxangorri da. Urriko asteetan sarri eta edonon entzuten da txori maitagarri honen kantua. Amaitzeko, gogoratu, kukuak txindorren habietan hazten dirala.

ERETXIA

Gizonak itsu diskriminazio egoeren aurrean

Aste honetan Bizkaian bardintasunaren aurrean maskulindadeen gaineko "Images" ikerketea aurkeztu dabe eta ondorioz nabarmeneko bat gizonetako andren desbardintasun egoerak antzematen ez dituela da.

Hori irakurri eta gero, gizonak, daltonikoen moduan, diskriminazio egoeren aurrean itsu dirala esan leiteke. Ez da euren errua.

Baina ni ez nago bape be ados honeguz. Androk be, kasu askotan, mende honetan gizonak bardintasuna lortu dogula pentsetan dogu eta gai honetan sakontzen dogunean diskriminazio egoerak identifiketan ikasten dogu. Gizonen kasuan, gai honeri garrantzirik emoten ez deusielako eta guk eskatu eta azaldu izan doguna entzun ez dabelako dala uste dot.

Baina barriro hasiko gara hau guztia azaltzen, astiro eta erraz.

Oso gai zabala danez, hizkuntza eta irudia aztertuko doguz.

Gure hizkuntzak gure norbakoaren gaineko informazio zabala emoten deusku. Euskeraz berba egiten dogunean euskaldunak garala aldarrikatzen dogu eta geure kultura ezetu arazoten dogu. Gure ingurua deskribiduten dogunean gure ikuspuntutik azaltzen dogu.

Berba egiterakoan gure hizkuntzaren erabilera zaintzen dogu. Ondo egin behar dogu berba, tonua egokia be erabili gura dogu eta gure hartzailarentzako ulertteraza izan beharko dau.

Horregaitik, oso inportantea da gure buruari galdetzea zelan egiten dogun berba eta gure ingurua zelan deskribiduten dogun.

Andra eta gizonak osotuten daben talde bateri buruz berba egiten dogunean maskulinoa bakarrik erabiltean, andrak desagertzen dira talde horretatik. Hori ez gertatzeko, talde baten neskak eta mutilak dagozanean genero



IDOIA RUIZ SANCHEZ

marka biak erabili behar dira.

Beste komunikazio bide garrantzitsu bat irudia da. Gero eta inportanteagoa da interneten gero eta gehiago erabilten dalako.

Irudi batek gauza asko trasmittiduten ditu. Helburu on baten alde gagozala, eta, aldi berean, nortzuk garan, zein taldetan gagozan edo gure lagunak nortzuk diran azaleratu arazoten dogu.

Argazki bat ateraten dogunean, alde tekniko eta irudian agertuko diran elementu guztiak kontuan hartzean doguz. Persona bat baino gehiago agertzen bada, irudian danak sartuko doguz eta

danak aurrera begira egon daitezana saiatuko gara. Talde handi bat danean ez da lan makala izaten, baina merezidu dau guk gura doguna ondo azaldu gura dogulako.

Argazki bat betiko da. Zenbat aldiz aspaldiko argazkiak berrikusten doguz eta orduko garaian bizitea zelan zan jakiteko aztertzen doguz?

EUSTATEk emoten dituan datuen arabera Euskadin biztanleen %51,45 andrak gara, eta Bizkaiko datuen arabera, oindino gehiago (%51,87).

Probabilidadearen legea apliketan badogu, ekintza bat danontzako bada, andrak eta gizonak egongo dira. Holan ez danean, zergaitik ez dagozan andrak edo gizonak aztertu beharko dogu.

Horregaitik jai bateko ekintza baten atera dan argazki baten "kasualidadez" gizonak bakarrik agertu dirala esaten deustenean sinestu ezinezko gauza dala uste dot. Atxakia zera da: "momentu horretan ez egoalako neskak ez ebela gura urten argazkian; zer gura dozu, derrigortzea?".

Argazki horren atzean dagoan lana jakinda, argazki baten gizonak bakarrik edo andrak bakarrik agertzen diranean, apropos egin da dagoala esan geinke eta andrak ez dagozala argazkian, talde horretan ez dagozala.

Andrak be badagozan talde baten gizonak baino agertzen ez diranean, guretzako eta hurrengo urteetan argazki hori ikusten dabenentzako andren lana edo ekarpena ikusezin bihurtzen dogu.

Hau guztiau ez da eztabaidatu daiteken eretxia. Legeak esaten dau andrak baztertzen dauan edozein jarduerak diskriminazioa eragiten dauala eta erakunde publikoen beharren artean diskriminazio horreen kontra egitea dagoala.

Oin, mesedez, zuen idatziak eta irudiak berraztertu ikuspegi honetatik eta andrak diskriminatan dituenak baztertu.

Danak egin ahal dogu gehiago bardintasunaren alde eta genero diskriminazioaren kontra.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkargatua: Batz 50 urte

MONDRAGON 50 URTE

LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA**

Euskeraz bizi

Nozkoak garan ez dakigu baina jatorrizko Euskal Herrian, euskaldunak euskeraz jaio, hazi, hezi, bizi eta hiltzen ziran. Historiaren joan-etorrian, beste hizkuntza batzuk sartu jakuz gurean eta euren inperialismoan zapaldu egin deuskue neurri handi baten gure euskerea eta euskal kultura... Baina, gu, herri zaharra gara, preindoeuropea, eta gure hizkuntza, euskerea, inguruetakoz hizkuntzak baino askoz zaharragoa da. Erasoaldiak goitik beheitik, guk euskaldunok, leku-denporetako zapaltzaileak aurre egiten jakin dogu, geure nortasuna galdu barik eta horretan daragoiogu gaur be eta ganoso eragon be. Euskereak eta euskal kultureak egiten gaitu euskaldun, baina oindino asko falta jaku Euskal Herri osoa guztiz euskalduntzeko. Gaur egun, batzuk euskaldun jaio gara, beste batzuk euskaldundu egin jakuz eta falta diranak euskalduntzeko ahaleginak egiten gabiz. Euskalduntze

bideko ekintzetariko bat Euskaraldia dogu, euskera biziarri arnasaldi bat emoteko. Euskaldun berbea, euskaradun berbatik dator. Euskalduna, euskerea dauana edo dakiana da. Euskera era biak dira euskerea, herrikoena zein alfabetatuena, bitzuo gara euskaldunak zorionez. Baina, euskerea jakitea ez da nahikoa, erabili egin behar dogu, bakotzak bere neurri eta erara, danok euskalduntzeko. Horretarakoxe antolatu dogu Euskaraldia kanpaina. Zemendiaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ekingo deusagu ahobizi eta belarriprest ekitaldiari, baina 11 egunez ekitea, hastea baino ez da, baina haste garrantzitsua, kontzientzia hartzeakoa. Herriko esaera zahar batek hauxe dinosku: "hasiak egin dirudi eta eginak urregoria". Hasi gaitzan euskeraz biziten eta jarraitu daigun Euskal Herri osoa euskaldundu arte. Euskerea bada-kigunok erabili egiten ez badogu, zer? Ba, "mihin bako arrana ugerrak jan". Baina euskeraz bizi bagara: "denporeak agertuko deusku edurra mendian". Halabiz!

Gorosti eta elorri lore zuri hazi gorri, ahobizi eta belarriprest Euskaraldira etorri.

Gauzez egon arren ilun argia egunez egun, euskerak eta euskal kulturak egiten gaitu euskaldun.

Itsasoan handi ura basoan ugari zura, euskaldun izan, euskeraz bizi zainduaz euskal kultura.

ZERTZEAN



MARIA ATUTXA

Gaia jarrita: "Batxilergoa"

1

Hasi zan bezalaxe amaitu zan uda egunek hartu eben Batxiller itxura hurbil somatu gendun barriro ardura etapa hau hasteko ordua heldu da.

2

Azido klorhidriko eta sulfuriko formula molekular edo empiriko hainbeste formula (e)ta hainbeste grafiko ni salbatzera norbait a(ha)l da etorriko?

3

Etxera heldu eta hainbeste liburu bertantxe ixten doguz bihotz eta buru holan pasatu doguz hainbat asteburu (e)ta pasau beharko doguz hori bai seguru.

4

Baina dana ez danez hain iluna, beltza bisitatuko dogu poztasunen ertza helburu guztieri emonez baietza danok lortuko dogu nahi dogun ametsa.

BEGI TXINDORRA

Urtetxoak dira bedar metak plastikoz batuta ikusten doguzala. Hasikeran balzak ziran. Plastikoa, itsasoa plastiko-zopa bihurtu ostean, landa inguruak be bereak egin gura ditu. Hasikeran, baserriko lanetan sartzean hasi zanean, isilik moduan sartu zan, kolore deigarriak erabili barik. Baltza, kolore dotorea da, eta lurren berdea eta zeruaren urdinagaz (zerua urdina da, baita lainotuta dagoanean be) ondo emoten dau. Orduan ez zan apenas igartzen plastikoaren presentzia. Ez zan apenas igartzen mendi eta landetan be gero eta plastiko gehiago egoala.

Baina poderea daukien guztiai gertatzen jakie momenturen baten harrokerietan hasten dirala. Pentsetan dabe inork ez dauala zigortuko egiten daben kaltea, eta disimulu barik, desafioan, erakusten dabe egindako mina. Ahal dabelako, poderedunak diralako. Eta oin Arratian, plastiko arrosatan batutako bedar metak dogoz.

Baina tirano guztien gainbehera, disimulua galtzean dabenean, diran modukoak bete-betean agertzen diranean hasten da.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zentzua 100
R.P.S. 21/06

**ASESORIA
Gorbeialde**
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA



Hizkuntza ohiturak aldatutako balio izango dau Euskaraldia prestatzen egindako lanak

Zemendiaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, Euskaraldia: 11 egun euskaraz ariketa soziala egingo da Euskal Herri osoan.

Erredakzioa

Ariketa honek euskerearen erabilera eragin gura dau. Izan be, arrakala handia dago euskera dakien eta erabilten dabenen artean eta Euskaraldiak hizkuntza ohiturak aldatu gura dauz eta euskerea bultzatu. Dakian hori, asko edo gitxi, erabili dagiala jentek.

Miren Dobaran Hizkuntza Politikarako sailburuordeak esan eban, "datuak baino sortuko diran aldaketak" daukiela garrantzia. Horregatik, Euskaraldia prestatzen dabiz kanpaina egin daben lanak izandako ondorioak egingo dabe arrakastatsu (ala ez) Euskaraldia.

Euskaraldiaren sustapenagaz uda aldera hasi ziran Arratiako herrietan eta urrietan egin dabez aurkezpen kanpainak. Izena emoteko eta parte hartzeako informazioa emoten daben kartelak, mahaiak eta batzarrak egon dira herrietan eta sare sozialen bitartez be zabaldu da informazioa. Holan, kanpaina zabaltzeko euskeraz berba egin gura dabenen sareak egin dira herrietan. Euskaraldia amaitutakoan, abenduaren 4an, ez da herritarren euskeraz egiteko gogoia amatauko, ezta euskaldunen sareak desagertuko be.

Kanpaina

Herri bakoitzean euren modura egin dabe kanpaina ahalik eta jente gehien ariketa honetara batu daiten. Hainbat herri bideoak egin ditue, Areatzan, esaterako. Areatzako bideoa Youtuben dago eta *Euskaraldia Areatza* dauka izena; beste bideo bat be laster kaleratuko dabe. Igorren hamaikakoa aurkezteko bideoa egin dabe eta Lemoan, proiektura atxikitu diranak arloka egingo dabez bideoak. Diman eta Zeanurin be, bideoak prestatzen dabiz.

Herri batzuetan ariketa hamaikakoa aurkeztu dabe edo aurkeztuko dabe, Igorren, Diman eta Lemoan, esate baterako; beste batzuetan, mahai eta baldien bitartez. Ohiturak aldatutako arlo guztietan, lanean zein aisialdian, euskeraz egiten hastea funtsezkoa danez, komertzio eta taberna askok emon deusie atxikimendua ekimenari eta "hemen aho-bizi eta belariprest gara" pegatinakaz, konbidauko dabe jentea euskeraz egiten euren establezimientuetan.

Lemoan, "berbodromoa" antolatuko dabe zemendiaren 9an, 19:00etatik 20:00etara jubiladuen gaineko aretoan Arratiako Berbalagunakaz batera.

Formakuntza saioak be egingo dabez Arratian UEMAko teknikariak. Areatzan zemendiaren 15ean izango da formakuntzea, 19:00etan, eta bertan, "Zer da Euskaraldia? Ze arazo sortu daitezke? Eta zelan bideratu arazook?" ikasiko dabez partaideak. Euskaraldia izena emon dabena izango dabe formakuntza saioan egoteko aukerea.

Bedian, umorezko bakarriketa batez emongo deusie hasikerea Euskaraldiari. Beatriz Elgezabal clown eta antzerkilariak bakarriketea egingo dau zemendiaren 21ean liburutegian. Amaituten danean, abenduaren 3an, partaideen argazkia egingo dabe frontoian.

Kanpaina ostekoa

Euskaraldiak hizkuntza ohituretan izandako eragina neurtzeko, Soziolinguistika Klusterrak ikerketea egingo dau. Horretarako hiru galdegegi egingo ditu: lehena, Euskaraldia baino egun batzuk lehena; bigarrena, ekimena amaitu eta egun gitxitara eta hirugarrena, 2019an, ohitura barriak finkatu diran ikusteko.

ARRATIA

Urri bigarrenaren 9ko Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan, hidrokarburoak ikertzeko, Landarre, Lore eta Sustrai izeneko baimenak emoten jakiez Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, SA eta Petrichor Euskadi Coöperatief, UA, sucursal en España sozietatei. Dimako udalerraren azalera handiena, Lore eremuaren barruan dago. Horrek hidrokarburoak bilatzeko zundaketa putzuak zulatuteko posibilidatea dakar.

Arratian hidrokarburoak bilatzeko baimena emon dau Eusko Jaurlaritzak

Erredakzioa

Baina oindino inpaktu handiagoa euki ahal dau, ikerketea aurreratua dagoalako, Saia izeneko ikerketa eremuari emondako baimen partziala. Urri bigarrenaren 3ko Aginduan, Saia izeneko ikerketa baimenari uko egiten jako "partez". Hor, 44.000 inguruko hektarea eremuari uko egin eta 5.000 hektarea inguruko eremuan zentratea ebazten da. Dimako udal iturrien arabera, eremu horren koordenadak mapan ipini ezkerre, baimendutako zatia, Arratiako bailaran, Lemoatik Zeanurira, kokatzen dala ikusi daiteke. Dimako udalerraren ipar mendebaldean bertan sartzen da baimen honetan.

Arratiako zatirik handiena Saia izenekoan dagoan arren, Igorre eta Lemoako zatitxo bat, Zeanuri eta Dimako zatirik handiena Loreren eremuan dagoz.

Dimako Udalak Eusko Jaurlaritzara jo dau informazio eske, baina informazio zehatzik ez dau jaso oindino. "Dekretura bideratzen gaitue. Informazio eske jarraitzen dogu" azaldu deutso Udalak BEGITURI. Arratiako beste udaletako EH Bilduko ordezkariak be ipini dira kontaktuan.

Eredu energetikoak eta ingurumena


Jaurlaritzaren dekretuak zehazten dau zelan egin behar diran putzuak ahalik eta ingurumenari kalterik txikiena egiteko. Ingurumenean sortu daitezkean arriskuak prebenidu eta zuzentzeko neurriak hartzea be proposatzen da bertan, eta lanak egin ostean landaretzea berretartzeko plana planteetan dau. Baina, gatxa da ulertutea zergaitik hartu ingurumen arrisku horreek agortutako eredu energetiko baten alde egiteko. Izan be, gaur egun, ez dago eztabaidan eredu energetikoa erregai fosil ala energia barritzagarrietan oinarritu behar dan; erregai fosiletan oinarritutako eredu batetik, energia barritzagarrietan oinarritutakora transizioa zelan egin baino. "Eredu energetikoen gainean gagoz berba egiten, eta baita gure ingurumenaren zaintza: zer sakrifketako prest gagozan, gure ustez eredu agortu batean mantentze aldera, erregai fosilena kasu" dinoe Dimako Udaletik.

Eta oindino gatxagoa da ulertuteko, kontuan izanda Eusko Legebiltzarrek *frackingaren* kontrako legea onartuta daukala.

Hori dala eta, deialdi bi egin gura

ditu Dimak. "Alde batetik, energia eredu desbardin baten alde dagozan herritarrek, gure ingurumenaren zaintzagaz arduratuta dagozanak, gure baliabideak zertara bideratzen diran jakin gurako leukienak, administrazioak gure diru eta zergak zertara zuzentzen dituen jakin gurako leukienak... eta abar luze bat, mobilizatza eta euren inguruan gertatzen danari adi egotera deitu gura doguz. Informaziorik emoten ez badeuskue, gure aldetik eskuratu beharko dogu eta. Eta beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzari, helduarazo deuskuezan mezu kontrajariak argitzera deitzean deusagu. Lehenik "6/2015 LEGEA, ekainaren 30ekoa, hidrokarburo ez-konbentzionalak erazteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo *frackingean* ingurumena babesteko neurri osagarri buruzkoa" onartu eban eta oin aita-tutako "AGINDUA, 2018ko urriaren 3koa" Saia eremuaren inguruan eta "142/2018 DEKRETUA, urriaren 9koa" Landarre, Lore, eta Sustrai eremuetan esplorazioa onartuten dauana".

Lore, Sustrai eta Landarre izeneko lur eremuetan, hidrokarburoak bilatzeko zundaketak eta ikerketak egin ahal izango ditue Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, SAK eta Petrichor Euskadi Coöperatief, UA, sucursal en España sozietateak. Lurra izenekoan barriz, "baimena atzera botatea" onartzen dau Jaurlaritzako dekretuak.



IGORRE

Neska gazteentzako autodefensa ikastaroa

Erredakzioa

Hamabost eta hemeretzi urte bitarteko neskeentzako autodefensa ikastaroa egongo da Igorreko Kultur Etxean zehazkiaren 9 eta 10ean.

Pili Alvarez Moles-en eskutik neska gazteak, erasoak identifiketan eta, indarkeriaren iturburu zain dan eta zelan eregitzen dan aztertuko dabe. Baita indarkeria matxistek taldean daukazan ondorioak be.

Eguneroko bizitzako indarkeria identifikatu eta aztertu eta gero, aurre egiteko mekanismoak ikasiko ditue gazteak.

Saio bi

Ikastaroak saio bi izango ditu. Bata, zehazkiaren 9an, barikuan, 17:00etatik 20:00etara izango da. Bestea hurrengo egunean, zapa-



tuana, 10:00etatik 13:00etara.

Izena, Arratiako Mankomunitateko webgunean, egoitza edo Arratiako udaletxeetan emon daiteke hildaren 2ra arte.

LEMOA

Baserriko produktuen azokea eta perretxiko erakusketea

Erredakzioa

Lemoako Udalak antolatuta, zehazkiaren 11n Lemoako XIX. Nekazaritzako Elikagaien azokea egongo da Elizondan, futbol zelaiaren ondoan. Goizeko 10:00etatik 15:00etara, 20 ekoizle inguruk ipiniko ditue salgai sasoi honetako baserriko produkturik onenak. Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako erakusketa mikologikoa be egongo da Atxetako plazan. Perretxikoak Arratian bertan bezperan batutakoak izango dira. Izan be, hildaren 10ean, perretxikoak

batzeako goizeko urtekerea antolatu dau Ganzabalek Arratiatik zehar.

IGORRE

Administrari eta peoi lan-boltsak eratzeko deialdia

Erredakzioa

Igorreko Udalak ebatzi dau administrari laguntzaile eta peoi lanpostuetarako lan-boltsak eratzeko deialdia egitea. Lan-boltsan oposizio lehiaketaren bidez sartuko dira hautagaiak. Informazioa eta agiriak udaletxean jaso daitezke. Eskariak aurkezteko atzen eguna zehazkiaren 13a da.

ARRATIA

Dimako eskoletan egin eutseen harrerea Emakumeen Mundu Martxakoai

Erredakzioa

Eguraldi txarra zala eta, bertan behera geratu zan Baltzolako kobara ibilaldia, baina Emakumeen Mundu Martxakoak ez ziran horregaitik euskal mitologiaren barri jakin barik geratu.

Arratiako andra taldeetako ordezkari bik harrera ofiziala egin otean, jantzak, bertsoak eta Rafa Ugalden Dimako idazlearen *Baltzolako ipuinak* liburuaren zati bat irakurri eta euskal mitologiako andrazko pertsonajeak azaldu ebezan. Hortik aurrera bete egin zan egitaraua eta

EMMko ordezkariak Arteko Herriko Bentako errefujiaduen historiak ezetuteko aukerea izan eben; baita Andran Gelan Arratiako Mobimentu Feministaren historia be.

Bazkariak eta ondorengo jantzialdiak emon eutsien amaiera egunari.



Emakumeen Mundu Martxako kideak eta arratiarrak Diman.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370
Lehendakari Agirre 4 · Igorre
maite.eileke@gmail.com

94 631 90 08

M. Jose zure arropa GALANTA

Beti bezala zure gustukoak

Agirre
Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es

www.facecook.com/galanta.lenceria

Oribaitako Herri Ikastetxeak

Gure ikastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

| | |
|---|---|
| JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa | Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea |
| Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima | Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre |
| Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio | Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza |
| Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri | I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre |

2 urtebiu 18ra

ARTEA

Ekomuseoa izandakoa aterpetxea izateko lehiaketa publikoa deitu dau Arteako Udalak



Erredakzioa

Esleipena hamabost urtetarako izango da eta hartzean dabenak 36 personentzako aterpetxe turistikoa sortu beharko dabe; taberna eta jatetxearen kudeaketa eroan, ekintza kulturalak indartuz; eta bagiletik urrietara, sasoi baten egon zan oilaskoteria berreskuratu eta gainontzeko hiletan formakuntza eta tailerretarako lekua eskaini. Proiektuak aurkeztuteko atzen eguna zehazkiaren 20a da.

Proiektu honegaz udal gobernuak "zenezko proiektu ekonomikoa, bideragarria eta erakargarria eta herriari bizitasuna ekarriko deusana aurkeztu gura dau". Euren arabera, "oin dala hiru urte, udal gobernuko taldeak, Ekomuseoaren etorkizuna aztertzeko, kontsultarako gutun bat bialdu eban etxe guztietara, 2016an, herritarren eretxia ja-

kiteko. Kontsulta honetatik proposamen batzuk sortu ziran eta aztertzen hasi ginan".

Ekomuseoa ala aterpetxea

Esleituko dan proiektuak eztabaidea sortu eban udaletxean Ekomuseoaren deuseztapena suposatzen daturalako eta EAJ-PNV kontra agertu zalako. Udal gobernuaren arabera, "azterketa prozesu baten ondoren, museoa berreskuratzea ezinezkoa zala ikusi genduan, urigintzako, museoko, zein errazoi teknikoakaitik. Izan be, urigintza irregulardadeak egozan euskal herririka dalakoan eta museoko ondarea oso hondatuta egoan, urteetako erakundeen babes falteagaitik". EAJ-PNVk ostera, ez eban gura Ekomuseoa zarratzea, bertan inbertidu eta teknologia barriak erabili ezker, turismorako errekiamo eta bultzatzaile ekonomikoa izan eitekkelakoan.

ARRATIA

Arratiako Berbalagun proiektuak bere seigarren urteari ekin deutso

Erredakzioa

Lemoa eta Areatzako Udalak Arratiako AEKgaz batera Berbalagun egitasmoa martxan ipini eben oin dala bospasei urte. Proiektuaren helburua euskera praktikau gura dauan jentea normalean berba egiten dabenak alkartzea da. Modu honetan, hizkuntza ohi-turak aldatu eta euskeraz gero eta berba gehiago egingo dabe, euren artean eta egunerokotasunean euskera modu naturalean erabiliz. Horretarako, astean behin eta ordubetez, gitxienez, hiruzpalau laguneko taldeak biltzean dira eta gura daben gaien ganean egiten dabe berba.

Talde txikietako asteroko dinamizak gainera, herriko, eskualdeko zein beste hainbat lekutako

euskaldunak alkartzeko aukera be eskaintzen dau Berbalagunek, urtean zehar egiten diran ekintzen bidez: urtekerak, ikastaro eta tailerrak, bazkariak, kirola... Holan, gustuko gauzak euskeraz egiteagaz batera, euskerazko hartu-emon sarea handitu egiten da.

Euskeraz berba egin gura dabenentzat

Berbalagun 16 urtetik gorako personentzat da. Oin arteko parte-hartzaileak hainbat errazoi aitatu ditue Berbalagun proiektuan izena emoteko: euskera praktiketea, maila hobetutea, ikasten dabilenari lagundu gura izatea, lagun talde barria ezetuteko aukerea izatea...

Parte hartzeako bete behar dan baldintza bakarra euskeraz berba



egin gura izatea da. Berbalagun programak euskeraz berba egin gura dabenak hartu-emonetan ipiniko ditu; non, noz eta zertarako, parte-hartzaileak eurak ebatziko dabe.

Izena Arratiako AEK Euskaltegian eta Lemoa eta Areatzako udaletxeetan emon daiteke. Baita aitaturako udaletxeetara, Arratiako AEKra edo 662 199 033 telefonora deitu edo arratia_berba@aek.eus helbidera idatzita.

ARTEA

2019ko aurrekontuak egiteko prozesuan herritarrek batzarrak egingo ditu Udalak

Erredakzioa

Zehazkiaren 9rako deituta dago Batzorde Irekia, egutegia eta metodologiaren barri emoteko. Ondoren, hilaren 14an, Biteri, Ugarte, Astui goikoa, Garantxe, Esparta, Larrazabal, Garai, Goiko eta San Martin auzoetako batzarra egongo da 19:00etan. Hilaren 15ean, eskola-umeak batuko dira esko-

lan goizean eta 19:00etan bigarren auzo batzarra egingo da Kalleja, Astui behekoa, Herriko Plaza eta Infante auzoetakoak. Hurrengo egunean alkarteetakoak batuko dira kezak eta ekarpenak jasoteko 18:00etan, egun berean hirugarren auzo batzarra egongo da beste auzo guztiak 19:00etan. Batzar guztiak Kultur Etxean izango dira.

Batzarretako ekarpenak aurrekon-

tuetan sartuta egongo dira zehazkiaren 21erako. Ondoren, etxeetara bialduko dabe aurrekontuen zirriborroa, inbersino proposamenak, eta herritarren biltzarretako deialdia eginaz. Arteaztarren Biltzarra, abenduaren 4rako aurrekusten da. Batzorde Irekia hurrengo astean batuko da eta abenduaren 19an, aurrekontuak udalbatzan onartutea espero dau udal gobernuak.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

ESKOI MUTURRA EUROPAN

Eskoi muturra neutralizetako, alkartasuna

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformek (OEE) deituta, zemendiaren 10 eta 11n hainbat eragilek topaketea egingo dabe Artean. Helburua da, Europako Parlamenturako hauteskunde bezperetan, kanpaina bat abiatzea, migrazio politika, gerra eta pobrezia aurre egiteko asmoz. Kanpaina zabaldutako atzenengo hiru urteotan, Mugaz Zabalduz Karabanak sortutako sareak erabiliko ditue, bai estatu mailan, bai nazioarteko mailan be.

Europako hainbat herrialdetan izandako atzenengo hauteskundeak, eskoi muturraren gorako joera erakusten dabe eta hori Europako Parlamenturako maiatzaren 26ko hauteskundeetan islatuko dala uste dau Anabel Sanz OEE eta Feministaldekoko kideak.



Erredakzioa

Eskoi muturraren politika arrisku-tsuai aurre egiteko Europa mailako ekintza sinbolikoa maiatzaren 5ean egitea proposatuko dau OEEK Artean.

Zemendiaren 10ean, ekimena definitzeko barruko lana egingo dabe, eta 11n, lan horren emaitza izango dan ekimena, plazan 12:30ean, aurkeztutako asmoa dagoala jakinarazo deutso BEGITU-ri Mikel Zuluaga OEEkoak. Gero, 14:30ean, bazkari herrikoa egingo dabe frontoian.

Eskoi muturra, migrazioa eta gizarte mobimentuak

Zuluagaren berbetan eskoi muturrak bere burua eregiteko, migrazioaren kontra joatea hartu dau bandera moduan. "Sektore pobreenakaz elikatzen da, pobreen arteko gerrea deritxana biztuz. Ze migrazioaileak pobreenakaz konpetiduten dabe gizarte laguntza, etxebizitza eta lanean. Kapitalismoak migrazioaileen premina dauka baina era berean, euren kontra ipinten gaitu".

Euren liderrak migrazioaileen kontrako diskursoak eta mugak

gotortzeko promesak erabilten dabe behin eta barriro Europa eta mundu osoan, sano emaitza onagaz. European Suedia izan da azken adibidea, urri lehenengoan egindako hauteskundeetan, partidu xenofobak ia bost puntu egin eban gora botoen %17,6 eta 62 eserleku lortuz.

Partidu ultraeskuindarrak gora egin dabela, ia Europako herrialde guztietako hauteskundeon ondoren emon beharreko notizia bihurtu da. Alemanian, Bigarren Mundu Gerraren ostetik igaz arte, ez zan parlamentuan ultraeskuiko partidurik egon. Eta igaz, botoen %12agaz sartu zan eskoi muturra legebiltzarrean. Frantzian eta Holandan, poderea hartzetik hur geratu dira. Austria, Polonia, Hungaria eta Italian gobernua dagoz, bakarrik zein koalizio baten parte moduan.

Espanian, Vox gorantza doa eta hedabideetako lerroburuak bete ditu. Ciudadanos gero eta gehiago lerratzen da eskuinera, eta panoramea kezkarri bilakatzen doa. Oindino gehiago kontuan hartzean badogu, eskoi muturrak eskoi osoan eragiten dauala eta eskoiak, sozialdemokrazian, Euro-

pako politika guztia kutsatuz.

Kapitalismoak eta patriarkaduak "pobreak gerra-deklarazioa egin deutsee eta baliorik ez daukien personak dagozala ebatzi dabe. Jentea jentearen kontra ipini gura dabe, pobreen arteko gerrea sustatuz. Horreri aurre eginen, alkartasun mobimentua eta feminismoa dagoz" dino Sanzek.

Gizarte ereduak

Sanzen ustez, eskoi muturraren igoera sano arrisksua da eta "gizarte mobimentuak eta gizarte orokorrak erreakzionetan ez badabe, sozialdemokraziak eta liberalak ez dira gai izango aurre egiteko. Hauteskundeetarako taktiketarik harago doa auzia, funtsezkoa da, gizarte ereduaren gainekoa". Izan be, partidu neofaxistak proposatuten daben gizarteak, Margaret Atwood-en *The Handmaid's Tale* (neskamearen ipuina) liburuko Gilead herrialdearen antza handia dauka aktibistearen ustetan. Eta hori ez da kasualitatea. "Izan be, feminismoak, politika, ekonomia eta gizarte ereduak zuztarretik aldatutea proposatzen dau. Feminismoak bilatzen dau ondasunen banaketea eta andrak euren bizitza eta gorputzen gainean ebazteko subjektu politiko libreak izatea. Hori guztia galdu egiten da European ezartzen dabiz migrazio politiketatik eratorritako gizarte ereduak. Lehenengotik kanpotik etorritako apliketan jakie, baina ez gaitzen engainau, horixe da andra guztientzako gura daben ereduak" dino.

Europako historiaren pasarterik ilunenak erakutsi deuskuen moduan, poderea hartzean dauanean, eskoi muturraren eraso ez da bakarrik izaten beste herrialde

batzuetatik etorritakoen kontra. Gizartean desabantaila egoeran dagozan kolektiboak, -andrak, eta LGTBQ+ kolektiboak, esaterako- lortutako eskubide guztiak galdu egiten dabez eta partidu horreen jopuntuan ipinten dira. "Migrazioaileen eskubideak defendidutera, ez doguz euren eskubideak bakarrik defendiduten, danon eskubideak baino" dino Zuluagak.

Izan be, Mikel Zuluagaren ustez, Europa deshumanizatzen doa eta Giza Eskubideak gero eta arrisku handiagoan dagoz. "Saiaitzen gara Europa humanizatzen, Giza Eskubideen balioak galtzean eta deshumanizatzen doalako. Alkartasuna kriminalizatu egiten dabe eta migrazioari jagokonean, gero eta politika murriztailegoak jartzen dira indarrean. Zelan egin, barriro be, Europa Giza Eskubideen kontinentea izan daitela?".

Alkartasuna

OEEkoen ustez, gizartearen alkartasunean dago gakoak. Eskoi muturraren gorakadak hedabideetako lerroburuak bete ditu eta ikusiezin geratu da gizartearen erantzuna neofaxismoen aurrean. Esate baterako, Vox-en mitinean 9.000 jarraitzaile batu baziran be,

jente gehiagok egin eban manifestazioa faxismoaren kontra Valentzian eta horren gaineko albisterik ez zan apenas egon.

Gainera, Europako migrazio politikak, desobedientzia eta alkartasuna eragin dabe Europa osoan zehar. Bigarren Mundu Gerran nazismotik iges egiteko erabilitako ibilbideak berreskuratzen dira jenteari mugak pasetan lagundutako eta migrazioaileak eta errefugiaduak etxean hartu edo errolatu dabezanak ugari dira. Alkartasuna eta harrerea emoten deutseenak milaka dira. "Atzerrira joandako eta gerrak sufridutako herri bat gara. Eta hori gure memorian dago. Horregaitik hartzean dabe hain lan handia neofaxistak geure memoria ezkutatzen. Faxismoa eta xenofobia birsortutako daukiezan baliabide guztiak erabilten ditue; tartean, hedabideak mezu errazistak bialduteko".

Alkartasun sareak eta kontaktuak aprobetxatuz, zemendiaren 10 eta 11n, Europa mailako fronte komun bat eregiteko lanean hasiko dira Artean. Gizarte mobimentuak batu eta sare bat eginen saiatuko dira, maiatzaren 5ean, 12:00etan, Europa osoa kalera urten daiten, mugak zabaldutako eta gerra eta pobreziaz gaz amaitutako exijiduten.

MIGRAZIO POLITIKA, GERRA ETA POBREZIARI AURRE EGITEKO EKIMEN EUROPEARRA
INICIATIVA CONJUNTA EUROPEA PARA HACER FRENTE A LA POLÍTICA MIGRATORIA, LA GUERRA Y LA POBREZA



AZAROAK 11 NOVIEMBRE ARTEA

12,30 plazan, AURKEZPENA/ Presentación
14,30 frontoian BAZKARI HERRIKOIA/ Comida popular

(txartelak salgai Arteako Herriko Bentan, 7€)



Ez aitzuteko

Italian faxismoa eta Espainian frankismoa poderera estatu golpeen bitartez heldu ziran. Alemanian barriz, hauteskundeetan lortutako botoak emon eutseen naziai poderea.

Angel Larrea historialariak ze testuingurutan igo ziran poderera faxismoa eta nazismoa ekarri dauz gogora eta gaurko egoera eta ordukoaren arteko antzekotasunak eta desbardintasunak aztertu ditu.

Angel Larrea Beobide

Italia

Lehen Mundu Gerraren amaieran, egoera ekonomiko, soziala eta politikoa oso nahastua bihurtu zan, ia anarkikoa. Tensinoa nabaria zan kaleetan, atentadiak be egon ziran. Izan be, momentua izan zan erradikalismo politikoak indartuteko. Benito Mussolini, kazetaria izandakoa, politikan sartu zan mobimentu ideologiko barri bategaz, eskoi muturrean kokatuta egoana: ezkerreko alderdien kontrakoa, nazionalistea eta antidemokratikoa. Ideologia horren izena faxismoa zan. Mussolinik "alkondara baltzak" izeneko taldeak mobilizau ebazan, Erroman sartu ziran eta, indarkeriaz baliatuz, indartsuena zala erakutsi eban. Erregeak Mussoliniri emon eutsan Gobernuko Buruaren kargua.

Mussolinik estatu-golpe bat emon eban, poderera heltzeako. Lehen esan dan moduan, Erregearen urtekerako politikoa zera izan zan: Mussolini izentau Gobernuko Presidente kargurako. Beraz, Italian faxismoak poderea lortu ondoren, beste alderdien eta indar politikoaren aurka jo eban, hau da, alderdiak eta langileen sindikatuak, adibidez, legearen esparrutik kanpo geratu ziran.

Alemania

1929 ezkerotik sortutako krisi ekonomiko sakonaren

eraginaren barruan kokatu behar da Alemaniako egoera korapilatsua. Langabeen tasa oso altuak, esate baterako, erantzun arrisksua sortu eban biztanleriarengan: abaniko politikoaren eskoi muturrean mobiduten ziran taldeen aldeko botoa emon eban. Fenomeno hau aurreko hamarkadan hasia zan, baina areagotu egin zan krisialdian. Alemaniako eskoi muturrean egoan alderdi batek hartu eban protagonismoa: Alderdi Nazionalsozialista (Alderdi Nazia) izeneko, Adolf Hitlerren buruzagitzaren pean. Hitler sistema demokratikoaz aprobetxau zan, hauteskundeak irabaziz, poderera heltzeako. Hasikeran, Kantziler edo Lehen Ministro kargura. Errepublikako Presidente hil zanean, Hitlerrek Führer edo Lider Nagusia bihurtu zan, hil arte, II. Mundu Gerraren amaieran, 1945. urtean.

Hitler eta Alderdi Nazia poderera heldu ziran Alemanian, botoetan ateratako kopurua nahikoa izan zan gobernetako, koaliziorik egin barik. Alderdi bakarreko gobernu izan zan, eta beste indar politikoaren kontrako ekintza bortitzak egiten hasi zan, jarkera antidemokratikoa erakutsiz.

Gaur eta orduko antzekotasun eta desbardintasunak. Antzekotasunak:

Krisi ekonomikoaren eragina bietan. Besteari, desbardinari, errua bota edo errudun bihurtu. Lehenago, Alemanian, nazientzat juduak ziran errudunak. Gaur egun, kanpotik datozen etorkinak dira errudunak.

Alderdi politiko tradizionalen aurkako jarkera oso kritikoa. Prensa eta komunikazio munduaren aurkako kritikak be zorrotzak eta ugariak dira.

Desbardintasunak:

Gerra arteko urteetan potentzia inperialisten krisia egon zan; gaur egun, globalizazioa da nagusi.

Europar eta Japoniar politika nazionalista eta militarista nagusi baziran; gaur egun, ultraeskuindarrak Europar ez ezik Amerikan be sortu eta garatu egin dira. Momentuko politikan, krisi sakonari aurre

egiteko ez dago urtekerarik edo, behintzat, ez da ikusten argibiderik, gizarte eta mundu konplejuan murgilduta gagozalako. Populismoak, barriz, zera dino: urtenbideak daukazala krisiari aurre egiteko. Populismoak Europako hainbat herrialdetan zabaldu dira, mobimentu ultraeskuindarraren neurriak edo mensajekaz bat eginaz. Hona hemen euren hiru puntu nagusi honeek:

-Xenofobia: etorkinen aurkako jarkerea, gorrotoa, bazterketea edo kanporaketea.

-Antieuropeismoa: multilateralismoaren aurka, nazionalismo estatala goratuz.

-Antiglobalizazioa: protekzionismoa, isolamentu ekonomikoa edota enpresen deslokalizazioaren aurka, hau da, negozioak/enpleguak "bertakoak lehenengo" lelopean.



Adolf Hitler goian eta Benito Mussolini behean.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa
- Bilboko Portu Autonomoan



Olaetxe

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gubitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK

MOKETA - SINTASOLA - PAPERERA

Elizalde, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 631 64 62 - 906 854 618

ugatxa
talentua

Ugarana kalea, 6
48141 Dima
T. 946 129 460

izkaifisios

IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA
Elizalde, 4
48140 Igorre
94 631 35 08
igorre@izkaifisios.com

ANDRA MARI KLINIKEA
Portzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@izkaifisios.com

Kili-Kili
Amigo eta Puntukoak

Lehendakari Agirre 10 - 48088 (Bizkaia)
Tel.: 94 472 43 81

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA

Tfnoa: 94 631 80 04

ESKALADEA



Itziar Zabalak brontzeko domina lortu eban Espainiako Zailtasuneko Eskalada Txapelketan

Erredakzioa

Lesino baten ostean, Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarrak "sensazio-bila" joan zala txapelketara dino eta ezuste pozgarria izan zala urriaren 14an Iruñean lortutako Espainiako brontze domina. Helena Alemanek irabazi eban proba.

Igaz Espainiako Bulder Txapel-duna izan zan, baina aurten ezin izan dau Espainiako txapelketan parte hartu. "Lesino batetik nator eta gorabehera askoko urtea izan da" azaldu deutso BEGITURI. Ha-ta guzti be, Espainiako Blokeko Kopan podium batzuk egin ditu.

Zailtasun proba gehiago

Sensazio-bila joan zan Espai-

niako Txapelketara eta sensazio onak topau ebazan. "Sano pozik nago. Zazpi urte dira ez nebala Espainia mailako zailtasun proba baten parte hartzean, eta ez neban holango emaitzarik espero. Ez nintzan irabazteko asmoagaz joan, baizik eta sensazioak tope-tan eta ia hemetik aurrera be horretan zentrauko nintzan ikusten".

Oin emaitza ikusita, aurreko probak egin ez dituan arren, Espainiako Kopako zailtasun azken proba egitea ebatzi dau Zabalak. Hau, zemendiko lehenengo astegienean jokatu da Madrilen.

Euskal Herriko Txapelketa be zemendian izango da eta bertan be parte hartzeako asmoa agertu dau Itziar Zabalak.

TXIRRINDULARITZEA

Juan Mari Zurinaga: "Jente askok ez daki Euskadi-Murias Arratia Ziklista Elkarteko taldea dala"

Denporaldi ezin hobea egin dau Euskadi-Murias taldeak: itzuli bi irabazi ditu, Norvegia eta Turkiakoak, Eduardo Pradesek biak, eta 36 podium egin ditu.

Erredakzioa

"Gure taldea da Arratiako ikurra urrunen eroan dauana" dino Juan Mari Zurinagak Arratiako Ziklista Elkarteko presidentea. Izan be, taldearen uniformeetako paparran AZEko ikurra dago eta Turkia edo Norvegiako podiumetako mailarik altueneraino igon da.

Euskadi-Murias taldea kontinental profesional mailan dago. Igaz arte, kontinental UCIn egon zan baina aurten kontinental profesionalera salto egin eta maila altuagoko pro tour taldeakaz neurtu da hainbat lasterketan, Espainiako Vueltan, esate baterako.

"Vueltan, 22 talderen artean, euretako 18 pro tour katego-

riakoak, hamargarren egin eban Euskadi-Muriasek" azaldu dau Zurinagak. Muriaseko Oscar Rodriguezek, Vueltako 13. etapea irabazi eban.

Oin, kaminoko denporaldia amaituta, Murias taldeko txirrindulariak ziklo-krosean lehiatuko dira.

Bizkaiko Txirrindularitza Federakuntzak saria emon deutso eskoleari

Euskadi-Murias taldean, Arratiako ziklista eskolan ibilitako txirrindulari bi dagoz, Ander Barrenetxea eta Mikel Bizkarra. Euren moduan asko dira eskolatik pasetan diran edade guztietako Arratiako umeak. Izan be, urtero 35 lizentzia inguru egin behar izaten ditue. "Hamar urtera



Murias taldeko txirrindulari bat Oizen gora Espainiako Vueltan.

arte, umeak kirol guztietan ibili behar dira, jolasean. Eskolako lana da zaletasuna sortzea, umeak segurtasunez eroatea lasterketara eta zaintzea. Bizikletatik ez jausten, kaminoan ibiltzen eta bizikletearen teknika erakusten deutseguz, baina garaipenetara fortau barik" azaldu deutso BEGITURI Ander Gorospe eskolako arduradunak.

Bizkaiko Txirrindularitza Federakuntzak eskoleak egindako lanari errekonozimentua egin eutsan urri bigarrenaren 6an, plaka baten bidez.



Juan Mari Zurinaga, Ander Gorospe, Mikel Zarrabeitia eta Andoni Ojanguren ziklista alkarteko ume eta gazteakaz.

MENDI LASTERKETA ETA MARTXEA

Hirugarren Lemoatx Trail zemendiaren 18an

Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Lemoatx Trail mendi lasterketak eta mendi martxak egonkor-tzen doaz eta ibilbideak hobetuten. Lasterketa eta martxa luzeak, 24 kilometrotakoak, igazko ibilbide bardina daukie. Laburrak barriz, 16 kilometro izango ditue aurten, eta Aramotzeko galdareari buelta osoa emongo deusie partaideak.

Lemoatx Trail ibilbidearen zati bat, errekuerautako lubakietatik pasauko da.

Hitzordua zemendiaren 18an da. Lehenengoak urtetan, 08:00etan, martxa luzeko partaideak izango dira; ordubete beranduago, 09:00etan, martxa laburra egin gura dabena. Mendi lasterketak 10:00etan eta 10:30ean izango dira, luzea eta laburra hurrengo hurrengo.

Hirugarren edizino honetan,

"asfalto ahalik eta gehien kentzean" saiatu dirala dinoe antolakuntzakoak eta zati batzuetan lortu dabe asfaltotik ibili beharrend mendiko pistetatik egitea ibilbidea.

Izen emotea zemendiaren 13ra arte

Gero eta jente gehiagok izena emoten dauanez, parte hartzeako gehieneko kopurua ipini behar izan dabe aurten. Izena www.kirolprobak.com webgunean emon daiteke zemendiaren 13ra arte. Kopurua ez bada beteten, egunean bertan be emon ahal izango da izena.

Proba amaitutakoan, parilladea, garagardao dastaketea eta kirol materialaren zozketea egingo dira.



Lemoatx Traileko kartela.

PELOTEA

Aspek Oier Etxebarria igorreztarra fitxau dau

Erredakzioa

Aspe pelota enpresek urrian jakinarazoz eban 21 urteko Oier Etxebarria Lemoako Pilota Eskolako pelotaria fitxau dauela Aspen jokaturako hurrengo bi urteetan. Igorreko atzelariak 2019an egingo dau debuta Eibarko enpreseagaz oindino zehaztu barik dagoan egun baten.

Etxebarriak urte batzuk daroz Asperen eta Jokin Etxanizen ikuskapen pean eta 2019an helduko jako Aspegaz debuta egiteko aukerea.



Oier Etxebarria.

MENDIA

Gorbeia Suzien barrero egingo da 2019an

Erredakzioa

2017ko urri bigarrenaren 7an jokatu zan Gorbeia Suzien Ternua lasterketearen seigarren eta momentuz atzenengo edizinoa. Datorren urtean lasterketea barrero antolatuko dauela jakinarazoz dau Zeanuriko Suzien Mendi Klubak.

Antolatzaileak ohar batez jakinarazoz eban, 2018an ez zala lasterketarik egingo. "Gorbeia Suzien Ternuako antolatzaileak oso pozik gagoz gure lasterketak egin dauan bideagaz. Izan be, sei urtean lasterketa txiki bat izatek, Europa mailako erreferente izatera heldu gara, hau guztiau gure hizkuntza, kultura zein ingurunea, Gorbeia, Zeanuri eta Arratia, Europaren begiradapean jarrita. 2018an, barriz, zenbait arrazoiengaitik, lasterketarik ez antolatzea ebatzi dogu".

Oin barriz, "2019. urtean, Gorbeia Suzien lasterketea berrabiatuko" dabela adierazoz dabe.

PELOTEA

Txapel guztiak Arratian geratu ziran Dimako Udagoieneko Txapelketan

Erredakzioa

Arrese-Beldarrain bikoteak Nagusietan, Erkiaga II.ak eta Etxebarria II.ak Gazte mailan eta Danel Beitiak Kadeetan jantzi ebezan txapelak. Erakusketa partidua be Amaia Alday dimoztarrak eta Ainhoa Romero lemoztarrak irabazi eban.

Arteako Mikel Beldarrain eta Arantzazuko Imanol Arrese bikote klasikoak goi mailan segiduten dabela erakutsi eban urri bigarrenaren 26an, Dimako Udagoieneko Pelota Txapelketan. Arratiarrak 22-11 irabazi eutseen Munitabarreko Zugadi eta Gemikako Arribalagari. Izan be, Arreseren tantuak amaituteko erraztasunak eta Beldarrainen segurtasunak, gura eta ezina sortu eban aurkariaren artean.

Gazte mailan, Anton Erkiaga II.a Zeanurikoak eta Mikel Etxebarria II. Igorrekoak 22-17 irabazi eban Zaratamoko Iglesias eta Lazkaoko Garmendiaren kontra. Partidua estu joan zan ia amaierara arte, baina orduan arratiarrak, "beste marxa bat sartu" eta txapela irabaztea lortu eban.

Kadeteetan, Danel Beitia zeanuriztarrak Xabier Rekalde dimoztarrari irabazi eutsan partidua (22-20). Lehia gogorra egon zan partiduan, baina Rekaldek "opari batzuk egin" eta Beitiak aprobeztetan jakin ebezan, txapela Zeanurira eroateko.

Txapelketatik kanpo egoan erakustaldi partidua be arratiarrentzat izan zan. Izan be, Amaia Alday dimoztarrak eta Ainhoa Romero lemoztarrak, Orozkoko Gentzane Alday eta Sopelako Enara Gaminderi nagusitu jakien.

Giro ona harmailetan

Dimako Txumuluxueta Pelota Klubak antolatutako txapelketea, "arrakastatsua" izan da antolatzaileen esanetan eta giroa "ezin hobea". Antolakuntzak laguntza emon daben guztiai eskerrak emon gura deutsez, batez be eskolako ume eta gurasoai.



Finalisten argazkia.

AZKOREA

Euskal Herriko bosgarren txapela jarraian irabazi dau Aitzol Atutxak

Erredakzioa

Finala Iruñeako Labrit pelotalekuan jokatu zan urri bigarrenaren 28an eta dimoztarrak 19 segundoko alde atera eutsan Iker Vicenteri.

Sei azkolarri ibili ziran lehian txapela nork eroango. Aitzol Atutxak 37 minutu eta 29 segundo behar izan ebezan lana amaitu eta txapela irabazteko. Iker Vicente (37:48) izan zan bigarrena eta Mikel Larrañaga (38:45) hirugarrena. Iñaki Azurmendi, Eneko Otaño eta Joseba Otaegi, laugarren, bosgarren eta seigarren sailkatu ziran, hurrengo hurrengo.

Lehia estua egon zan Atutxa eta Vicenteren artean. Izan be, Vicen-

te lehenengoa joian probearen hasikeran, baina Dimakoa alde murrizten joan zan eta lehenengoa jarri eta 15 segundoko alde

ateratzen eutsan atzen enborra moztzen hastekoa zanean. Gogor saiatu zan arren, Vicentek ezin izan eban garaipena lortu.



Aitzol Atutxa Labrit pelotalekuan.

AZARO MUSIKALA

9. BARIKUA
AURKEZPEN MUSIKATUA: Txirriski txoriaren ipuin musikatuak
• 19:00etan Kultur Etxean, Areto Nagusian •

10. ZAPATUA
KONTZERTUA: Cover Radio
• 22:00etan Arteako Plazan •

12. ASTEHENA
HITZALDIA: "Operari buruzko hitzaldi didaktikoa"
ABAO-OLBE programa didaktikoaren barmuan Aitziber Aretxederria.
• 17:30ean Kultur Etxean, Areto Nagusian •

16. BARIKUA
KONTZERTUA: Kamara-Korus, BEGI ARGIAK
• 20:00etan Kultur Etxean, Areto Nagusian •

18. DOMEKUA
AURKEZPEN MUSIKATUA: Txirribitas
Idazlea: Gorka Andreaka.
• 13:00etan Herriko Bontan •

22. EGUNA
SANTA ZEZILIA EGUNA:
Musika Eskolako Kontzertua • Kalejira • Kontzertu Korala
Luis Inuamaza abestatzat, Musika Eskola, Arteko eskola eta Arteko umeak
• 18:00etan Musika eskolako kontzertua / Kultur Etxean, Areto Nagusian •
• 18:15ean Kalejira •
• 18:45ean Kontzertu Korala / Andra Mari Etxean •
• 20:00etan Amaiera •

23. BARIKUA
DISKO FESTA: Kalma
• 19:00etan Kultur Etxean, Sotanoan •

23. BARIKUA
ARTEAKO ESKOLAN MUSIKA ERE BAI!
• Anzatsaldeko 15:00etan •
Arteako guztiak gonbidatuta

24. ZAPATUA
KONTZERTUA: LOWE
• 20:30ean Batzokian •

30. BARIKUA
KONTZERTUA: Clowerwind
• 20:30ean Kultur Etxean, Areto Nagusian •

LUDOTEKA: Hilabete osoan zehar MUSIKAREKIN lotutako tailerrak, jokauk...

Atutxa Pelota Kluba, Arteko Eskola, GURASO ELKARTEA, HERRIKO BONTA, ARTEAKO MUSIKA ESKOLA, AKKT, HITZOKIA

DOKUMENTALA

Eukeni Arriortuaren *Pastoreak* filmak Ikuslearen Saria jaso dau Lekeitioko Euskal Zine Bileran

Aurten, Lekeitioko Zine Bileran barrikuntza izan dan Ikuslearen Saria, Igorreko Eukeni Arriortuak zuzendutako *Pastoreak* filmarentzako izan da. Zidarrezko Antzarra eta 750 euro izan ditu saritzat.

Erredakzinoa

Dokumentalak, ordu erdi eskas-txoan (29' 17"), artzainen bizi-moduari buruzko "beste ikuspegi bat" eskaintzen dau. Arriortuak Jon Etxebarria Ipiñaburukoa ezetuten eban eta "lankideai proposatu neutsen pastoretzeari buruzko dokumental bat egitea. Oso bisuala" dino. Ardiak Gorbeiatik bajatzera joan ziran egunean, joan zan Arriortua grabetan eta Puy Arrieta ezetu eban, dokumentalaren protagonista nagusia bihurtuko zana. Izan be, Arrietak andren lekua pastoretzan aldarrikatzen dau eta, zuzendariaren arabera, honek mamia emon deutso dokumentalari. Grabaketa eguna lainotsua izan zan eta irudi ederrakaz kontetan dau Arriortuak pastoretzearen inguruko historia hau. Gorbeiatik Ipiñabururako bidean, eta Arrieta eta Etxebarria pastoreen Zeanuriko Ipiñaburuko etxe inguruan dago grabauta.

Bilboko Mendi Film Festival-en eta abenduko Zeanuriko Kultur

**Eukeni Arriortua.**

Astean ikusteko aukerea egongo da.

Sinopsia

Artzaintza Euskal Herrian mendeetan zehar oso sustraitua izan dan ogibidea da. Oin, barriz, egungo globalizazio garai

honetan oso gitxi aukeratuten dabe lan hau. Gitxiengo horreen artean Puy Arrieta eta Jon Etxebarria dagoz, Arratiako bailaran bizi diranak eta lan honeri gorputz eta arimaz emonak, hau da, bizi estilo jakin honeri. Dokumental honek, gaur egun artzain izatea

**Pastoreak dokumentala.**

zer dan, euren ohiturak zeintzuk diran, transmisioa, balioak eta andren papelaren gainean egiten dau berba. XXI. mendeko pastoreen gainean, hain zuzen be.

Bideografik-en, euskerazko dokumentalak

Oin dala hogei bat urte hasi zan Arriortua kamara hartu eta grabetan *La Botica de la Abuela* programan. *La Botica de la Abuela* TVEko programa bat zan, gero ETB1era pasau zana. Keinu produktoreak grabetan eban, oin Igorreko Gaztetxea dan espazio horretan bertan eta han hasi zan Arriortua, kamara eta argigintza lanetan batez be. Gero beste produktora batera pasau zan, eta atzenik, kooperatiba bat sortu eben lau teknikariren artean, Bideografik izeneko, Durangon.

Bideografik-ek, telebistarako behar asko egiten dau eta beste produktora batzuentzako be bai. Baita dokumentalak be, bezeroentzako zein propioak. "Gureak diran dokumentalak danak dira euskeraz. Bezero batek erderaz eskatu ezker be egiten doguz,

baina geureak diranak danak euskeraz" dino Arriortuak.

Ez da lehenengo aldia Bideografik produktorearen lan batek saria jasoten dauala Lekeitioko Euskal Zine Bileran, euskerazko zinearen jaialdian. Izan be, 2010ean, *Psicobloc: ur sako-netako bakardeak* sari bat jaso eban eta 2012an, *Gure arbasoen ogibideak* dokumentalak beste bat. Aurten, *Pastoreak* lanagaz saria jaso dabe hirugarrenez.

Mendi Film Festival-en be 2011n Txikonegaz Pakistanara bidean egindako dokumentalak, *Aizkora hotsak goi mendietan* izenekoak, euskerazko film onenari saria jaso eban.

Dokumentalez gainera, promozino bideoak be egiten dauz Arriortuak. "AEKra be egin dogu lan; oin dala urte bi egin genduan Durangoko Liburu Azokako promoa, Korrikarako dokumentalak atzenengo edizinoan... Produktu desbardinetan egoten gara, batzuetan egiten dogu grabaketa, beste batzuetan, argien zuzendaritza... gauza asko egiten doguz" dino Bideografik-ekoak.

DISKOA

Single bi atera ostean, disko barria aurkeztuko dau Eskean Kristök

Erredakzinoa

Zaldia negarrez eta *Dirdira-dardara* kantuen singleak eta bideoklipak kaleratu ostean, zemendiaren 9an, 22:30ean, Kiñu Gaztetxean egingo dabe hamar kantako *Beste belaze batzuen gozoan* diskoaren auzpezen kontzertua eta diskoak salgai ipiniko ditue. Astegoen horretan be igoko dabe plataforma digitaletara. Aurrerago biniloa be aterateko asma daukie Eskean Kristökoak.

Diskoaren izena, *Zaldia negarrez* kantutik hartuta dago, kantu horretako berbak dira. Disko honetan gauzak desbardin egin dabezala dino Pello Artabe tal-



doko arantzazutarrak eta horri be egiten deusala erreferentzia diskoaren izenak. "Jente barri askogaz egin dogu lan eta esplorau egin doguz beste aukera batzuk" azaldu deutso BEGITU Artabek.

Diskoa argitaratzeko taldeak bere zigilu propioa sortu dau, Trumots Records izeneko.

Nobedade asko dakar. "Disko honetan beste soinu eta beste musika estilo batzuetan sakondu egin dogu. Betiko rock and rolla egin dogu baina pop ikutu batzuk emon deutseguz, bossanova-gaz be atrebidu egin gara..." dino Peio Artetxe billaroztarrak. Punk, blues eta erritmo latinoak be egongo dira, beste batzuen artean. "Barrikuntzak egin doguz baina material zaharragaz, *vintage*. 1970eko hamarkadako anplifikadore eta gitarrakaz. Ikutu modernoa emon deusagu, baina soinua, *vintage* da" azaldu dau Alex Harillo Artazakoak.

Disko hau aterateko Cesar Ibarretxe produktoreagaz egin dabe lan. Lehenengo aldia izan da produktore batezagaz egin dabela lan baina kanpoko eretxi bat gura ebela dino, taldekoa ez zan batena. Azalaren diseinua, Iñaki Gonzalezek egin dau. "Inozkorik

**Peio Artetxe, Alex Harillo, Manu Forte, Aritz Ontalvilla eta Pello Artabe.**

beharririk handiena egin dogu disko honetan. Dana dago kapritxorra eginda eta ondo jagon doguz detaile guztiak" dino Artabek.

Eskean Kristö

Pello Artabek (ahotsa), Alex Harillok (gitarra), Aritz Ontalvillak (gitarra), Peio Artetxek (bajua) eta

Manu Fortek (bateria) osotuten dabe taldea. Taldeak maketa bat eta beste disko bi ditu kalean: *Eskean Kristö*, *Azote Kaldüz* (2014) eta *Ezkurrik onenak* (2016).

Kiñu Gaztetxeko kontzertuaren ostean, urtea amaitu orduko beste zazpi kontzertu emongo ditue diskoa aurkezteko.

MUSIKEA

Azaro Musikala Artean



ko Areto Nagusian.

Zemendiak 18, domekea
13:00etan, Gorka Andrakaren *Chiribitas* liburuaren aurkezpen musikatu Herriko Bentan.

Zemendiak 22, eguena
Santa Zezilia Eguna
18:00etan, Musika Eskolako kontzertua Kultur Etxeko Areto Nagusian.
18:15ean, kalejirea.
18:45ean, kontzertu korala Andra Mari eleizan. Luis Iruarizaga abesbatza, Musika Eskolea, Arteko eskolea eta Arteko umeak.

Zemendiak 23, barikua
15:00etan, Arteko Eskolan Musika ere bail jaialdia, jente guztientzat.
19:00etan, disko festa Keima taldeagaz Kultur Etxeko sotoan.

Zemendiak 24, zapatua
20:30ean, Lowe taldearen kontzertua Batzokian.

Zemendiak 30, barikua
20:30ean, Cloverwind taldearen kontzertua Kultur Etxeko Areto Nagusian.

Erredakzioa

Zemendian, hile osoan zehar, musika estilo desbardinatuko kontzertuak eta beste ekintza musikatu ugari egongo dira Artean, Udalak, AKKT-k, Jubiladu alkarreak, Guraso alkarreak, Herriko Bentak, Batzokiak, Arteko eskoleak eta Arratiako Musika Eskoleak antolatuta.

Ludotekan, musikeagaz lotutako tailerrak, jolasak eta abar egongo dira hile osoan.

Zemendiak 9, barikua
19:00etan, Ipuin kontalaria. Txirriski txoriaren ipuin musikatuak Kultur Etxeko Areto Nagusian.

Zemendiak 10, zapatua
22:00etan, Cover Radioren kontzertua plazan.

Zemendiak 12, astelehena
17:30ean, ABAO-OLBE programa didaktikoaren barruan, Aitziber Aretxederraren operari buruzko berbaldi didaktikoa. Kultur Etxeko Areto Nagusian.

Zemendiak 16, barikua
20:00etan, Begi Argiak kamara koruaren kontzertua Kultur Etxe-



KIROL ASTEA

Lemoak persona inaktiboak aktibo bihurtzeko egingo dau behar

Erredakzioa

Lemoako Kirol Astea zehazkiaren 12tik 18ra izango da. Egun horreetan, kirolaz hausnartu eta praktiketako aukerea egongo da. Berbaldiak emongo dabe hausnarketarako aukerea; praktikarako barriz, astea zarratuko daben Lemoatx Traileko mendi martxak zein lasterketak.

Kirol asteari hasikerea emoteko, Udalak Eusko Jaurlaritzako Mugimenduzko izeneko egitasmoa aurkeztuko deutse jubiladuak astelehenean, hilak 12, euren lokalean. Egitasmoaren helburua, jarduera fisikoa areagotzea eta sedentarietatearen murriztea da, persona inaktiboak aktibo bihurtuz. Lemoako Udala atxikitu jako

programa honeri eta urtailean ipiniko da zerbitzua martxan.

Berbaldiak, mendi lasterketak eta martxak

Hurrengo egunetarako hiru berbaldi dagoz programata. Martitzenean, 19:00etan, Patri Espinar pelotariak, 2017an munduko txapeldunak, andrak eta kirolaren gaineko berbaldia emongo dau udaletxean. Hurrengo egunean, 20:00etan, Jubiladuen etxearen gaineko lokalean, beste berbaldi bat egongo da. Oingo honetan Ganzabal Mendi Taldeko Jon Ander Linazaren txandea izango da eta honek Chamonix eta Zermatt arteko ibilbidearen barri emongo dau. Barikuan, hilak 16, Lemoako Txirrindularitza Elkarteak antola-

tuta beste berbaldi bat emongo dau Ziortza Villak txirrindularitza eta andrak gaitzat hartuta.

Zapatuan barriz, pelotea. Emakumeen Master Cup-eko partiduak ikusteko aukerea egongo da arrastiko 16:30etik aurrera, Lemoako frontoian. Kanporaketa faseko kategoria desbardinatuko hainbat partidu jokatu ditue pelotariak arrastian zehar.

Aste Lemoatx Trail mendi lasterketak eta mendi martxak amaituko da. Ibilbide bi egongo dira, bata 24 kilometrotakoa eta bestea 16koa, eta ibilbide bakoitza egiteko modu bi egongo dira aukeran, martxea edo lasterketea.

Aste osoan zehar, eskolan hainbat kirol ekintza programatu ditue umeentzako.

ZINEKLUBA

Le meraviglie filma Igorreko Zineklubean

Erredakzioa

Le meraviglie Alice Rohrwacher zuzendariaren bigarren filmak, Cannes Zine Jaialdian Epaimahaiaren Saria jaso eban 2014an. Aktoreen artean, Monica Bellucci dago. Lasarte Aretoan ikusteko aukerea egongo da zehazkiaren 8an, iluntzeko 20:00etan.

Sinopsia

Uda amaiera da Umbriako herri baten. Gelsomina, bere aita eta hiru ahizta txikerrekaz bizi da ezitia ekoizten dan etxalde baten. Neskak gizartetik aparte bizi dira aita mundu amaiera

datorrela uste daualako eta gurago daualako alabak natureagaz hartu-emonetan egotea. Baina Martin gizarteratze programa batetik etorritako gazte delitugile

alemaniarren etorrereagaz eta eskualdean zabaltzen dan telebistako lehiaketa bategaz, familia alkatuta mantenduten daben arau zorrotzak bigunduko dira.



DUNBA

Zeanuriko duatloia

Zeanuriko ikastetxe 6. mailako ikasleak

Zeanuriko plazan zelango sasoi! Eta igotzen dabe Alzusteko goia Makaztin egin batek eskuan tiroia ta bajatzerakoan edan ur bidoia ondo pasatzeko da Zeanin duatloia.

Gure herrian beti dago lasterketa eta herrian zehar egiten da buelta txapelketa ostein sari banaketa korrika egiteko zaindu behar dieta lupetzez bete jata nire bizikleta.



Sei kilometro terdi gu goaz galapan esfortzu asko eginez lehenengo aldapan zauriakaz beteta ezkerreko hankan lasterketa gehiena egin dogu pin-pan helmugara heldu gara galdu barik mapan.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 1 | | | | | | | |
| 2 | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | |

EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Kolore bat. Letra izena.
- 2.- Bokala. Soinuaren intentsitatea neurtzeko banakoa. Konsonantea.
- 3.- Parea. Zatia. 4.- Garau. Tik-..., erlojuaren hotsa. 5.- Moztu.
- 6.- Modua, era. Frantziako hegomendebaleko departamentua.
- 7.- Ibi. Kanpo. 8.- Bostehun erromatar. Kide. Azken letra.
- 9.- Gitxi falta. Egunsentia.

GOITIK BEHERA

- 1.- Edegialdi. 2.- Uranioa. Errenkada.
- Bokala. 3.- Errubidioaren sinboloa.
- Trenkatu. 4.- Harridura adierazoteko interjekzioa. Azken bokala. Berba alkarketan, adar. 5.- Hizkia. Jainkoa, hizkuntza semitikoetan. 6.- Fosforoa. Atala. Boroa. 7.- Esaera.

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| V | B | L | V | V | I | 6 | O | R | R | E | N | A | |
| Z | E | D | I | D | 8 | V | A | B | E | T | O | Z | |
| L | V | C | V | L | Z | O | Z | O | G | M | O | Z | |
| N | I | V | V | R | 9 | K | Z | E | I | R | A | K | |
| U | T | R | U | R | 5 | R | E | L | A | S | T | E | |
| A | L | E | T | A | 4 | O | J | X | N | A | U | Z | |
| Z | E | P | E | L | 3 | T | O | M | O | L | A | R | |
| S | B | E | L | A | 2 | N | E | Z | U | K | L | I | |
| I | Z | U | R | I | 1 | E | K | A | S | U | Z | K | |
| 7 | 6 | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | Z | G | O | A | T | Z | U |
| | | | | | | | M | I | K | A | E | R | |

Topau aditz trinko iragangaitzen zazpi forma.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | E | N | K | A | R | R | E | N | A |
| O | R | O | I | T | Z | A | P | U | R |
| Z | A | B | E | T | O | Z | U | Z | K |
| N | M | U | N | I | G | J | B | L | O |
| A | A | D | I | R | U | A | P | H | F |
| Z | I | T | N | I | R | G | U | R | A |
| O | O | Z | O | G | M | O | Z | T | U |
| K | Z | E | I | R | A | K | G | O | R |
| R | E | L | A | S | T | E | A | B | I |
| O | J | X | N | A | U | Z | T | E | A |
| T | O | M | O | L | A | R | U | G | O |
| N | E | Z | U | K | L | I | B | A | Z |
| E | K | A | S | U | Z | K | E | P | A |
| Z | G | O | A | T | Z | U | E | Z | T |
| M | I | K | A | E | R | A | Ñ | B | O |

**A
KI
MI
KO**

Zorrozkiilo

BALSANAR



umean modu
sem
@-IG
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tlfnoa: 94 631 92 96 • semmodu@hotmail.com

begitu
areala utzi ezazu

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGIA
GATY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 • 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-49-54

ZEKUTZE
JATEGIA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutejategia@hotmail.com

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkara egin eta buzkunduten dogu.
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

BADATOR BELDUR BARIK JARRERA! LEHIAKETAREN 9. EDIZIOA

Aurten ere, Beldur Barik Jarrera hobekien helarazten dituzten adierazpen artistikoak saritu nahi ditugu. Eta zeri deitzen diogu BB Jarrera? Genero arauak hausten dituzten jarrerei. Neska eta mutilek, elkarrekin, kultura marxistari nola egiten dioten aurre islatzen dituztenei. Aniztasunarekiko errespetua adierazten dituztenei. Beldurrik gabe, aske eta modu autonomoan gabiltzala erakusten dituztenei... Zein da zurea?

Aktibatu, eztabaidatu eta azaldu zaitez Beldur Barik Jarrerarekin! Hartu parte lehiaketan.

AURKEZTU LANAK, IRAILAK 24tik, AZAROAREN 9ra

ANIMATU ETA PARTE HARTU!
Kontuztatu oinarriak gure web orrialdean:
www.beldurbarik.eus

EZ GALDU BELDUR BARIK TOPAKETA!

Azaroaren 24an ospatuko dugu Gasteizko Europa Biltzar Jauregian

Autobusak egongo dira, doan, arazorik gabe hurbildu ahal izateko. Programazioaren, ordutegiaren eta ibilbidearen informazio zehatzagoa aurkituko duzue gure web orrialdean.

Sari banaketa, emanaldiak, tailerrak, lunba, kale-ekintzak...

...ETA ARE GEHIAGO!
Informazio eta gure web orrialdean
www.beldurbarik.eus
+ sare sozialetan



2018 BELDUR BARIK JARRERA Partekatu! COMPARTE BELDUR BARIK

BELDUR BARIK .EUS

PHOTOCALL
TXAPAK EGITEKO TAILERRA

ARRATIAKO SARI BANAKETA
AZAROAK 23 ARTEAKO KULTUR ETXEA 18:00

KAMISITIK SERIGRAFIAZKO TAILERRA (3h30r) DOAN!

Lanak aurkezteko aroa: 2018ko irailaren 24an (ostirala) eta 2018ko azaroaren 9an (ostirala).




2018KO UDAGOIEN ETA NEGUKO ESKAINTZAK

DAKIENENTZAT

Profesionalen makinak, danontzat

PLAN REMOVE MOTOZERMAK 150€ ENTIAMATE BIZI BARRA

Zeure denda espezialistan bakarrik

GARAJE FELIPE
www.garajefelipe.stihl-tienda.es

Garbe, 2 - Igorre
946 736 339
garajefelipe@euskalnet.net

Montorra auzoa, Behea 1º - Amorebieta
946 309 039
garajefelipe2@telefonica.net

2018ko abenduaren 21era arte bako bako daben eskaintza eta jarduerak